

## ITSASONTZI BATEN KROSKOAREN FABRIKAZIOA 3D INPRIMAKETA ETA MOLDATZE TEKNIKEN BIDEZ.

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campusa:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Bilboko Ingeniaritza Eskola
- **Gradua/k:**
  - Itsasketa
  - Nautika eta Itsas Garraioa
- **Garapen-lekua (helbidea):** Portugaleteko eraikina. Maria Díaz de Haro, 68. Portugalete.

### 1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Jarduerak tailer formatua izango du. Lehenengo eta behin materialei buruzko praktika bat egingo dugu, erretxina biodegradagarriko ontzi txiki baten kroskoa eginez. Ontzigitzan ikasteko jarduerak egingo dira ere eta 3D inprimaketa eta diseinu teknikei buruzko ekintza sinpleak. Jarduerak 2 ordu eta erdi inguru iraungo du.



### 2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- Ontzigitza: flotagarritasuna, egonkortasuna eta hidrodinamika.
- Material biodegradagarria.
- 3D inprimaketa eta moldekatze bidezko fabrikazio-teknikak.
- Jasagarritasuna eta itsas kutsaduraren prebentzioa.

### 3. EGINGO DIREN EKINTZAK

---

- Itsasontzien diseinurako sarrera, jarduera praktikoen bidez: ontzien flotagarritasunari, egonkortasunari eta hidrodinamikari buruzko jarduera praktikoa.
- 3Dko inprimaketa tekniken bidez ontzi baten kroskoa proposatzea eta diseinatzea, material biodegradagarriak erabiliz.
- Erretxina biodegradagarriaz moldekatzea, 3Dko pieza inprimatuetatik krosko bat egiteko

### 4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

---

Data	Hizkuntza	Txanda	Orduategia	Plazak
2025-01-17	Elebiduna	Goizez	10:30 – 13:30	12

---